



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko maiatzaren 18a

49. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da deusezta dezan iragan martxoaren 18an “Fundación para la Investigación Médica Aplicada” erakundearekin sinaturiko hitzarmena. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onesten duen 174/1999 Foru Dekretua. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ondarearen gaineko Zergaren aldaketa bultza dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da indarrik gabe utz dezan salestarren ikastetxea Sarriquiren lekualdatzea lehentasunezko jarduketatzat hartzeko konpromisoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aplika dezan Ondare Historikoaren Babesa Ziurtatzeko 16/1985 legearen bosgarren xedapen iragankorrean ezarritakoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hedabideen sektorearen lan egoeraren gaineko azterlan bat egin dezan. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan igo ikasleen ratioa hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak dauden tokietan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat aurkez dezan Osasunak bere tributuzorra ordaintze aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Nafarroan egun dauden epaitegietatik edozein kendu, lekuz aldatu edo ixtearen aurka dagoela. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten baitu Israelgo espetxeetan preso dauden palestinarren egoera dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko indarrean dagoen araudira ekarriko ote diren Espainiako Gobernuak Sozietateen gaineko Zergari buruz eginiko aldaketak, Juan Carlos Longás García jaunak egin (12. or.).
- Galdera, jakiteko zuzemenik eginen ote den Nafarroako Kutzaren ondare kultural eta artistikoaren etorkizunari dagokionez, Juan Carlos Longás García jaunak egin (13. or.).
- Galdera, ospitaleguneko sukaldeko obren kostuari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin (13. or.).
- Galdera, jakiteko Tokiko Poliziak Koordinatzeko Batzordeko kideek inolako diru-ordainik jasotzen ote duten, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (14. or.).
- Galdera, 2012ko enplegu-tasaren beherakadaren gaineko aurreikuspenari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutzako Entitate Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorrenen bilkurei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutzako Entitate Sortzaileen Batzarrak emandako txostenei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutzako Entitate Sortzaileen Batzarreko kideen dietetarako baimenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutzaren 2002tik 2012ra arteko balantzei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutzaren industria korporazioa sortu zenetik haren partaidetza izan duten enpresei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutzaren estatutuen aldaketari buruzkoa, non Entitate Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorra “organo” berri gisa sartzen baita, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (18. or.).
- Galdera, Legasako Arcelor-Mittalen lantegiaren balizko jarduera-amaieraren gaineko aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Aranoko Heineken-Amstelen garagardo-nabe zaharrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Tafallako Fotón enpresak jasota edo jasotzeko dituen laguntza publikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuan hartutako neurriei buruzkoa. Errege Lege Dekretu horrek osasun estaldurarik gabe uzten ditu egoera irregularrean dauden etorkinak. Galdera erretiratzea (21. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da deusezta dezan iragan martxoaren 18an “Fundación para la Investigación Médica Aplicada” erakundearekin sinaturiko hitzarmena.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita deusezta dezan iragan martxoaren 18an “Fundación para la Investigación Médica Aplicada” erakundearekin sinaturiko hitzarmena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamendurekin bat, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

2011ko martxoaren 18an hitzarmen bat sinatu zen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak FIMARI salduko baitizkio Donapea IPIren lursailak eta eraikinak. FIMA-Ikerkuntza Mediko Aplikaturako Fundazioak CIMA kudeatzen du, eta Nafarroako Unibertsitate pribatuari lotuta dago. 2012ko ekainaren 30a baino lehen, Gobernuak lursaila eta eraikinak emateko konpromisoa hartzeko moduan egon behar du.

Hitzarmenak berak irregulartasunak aitortzen ditu orubearen erregistro-inskripzioari dagokionez; izan ere, orubearen jabea Iruñeko Udala da, eta

Udalak Hezkuntza Ministerioari laga zion, odako lagapeneko eskritura bidez, Osoko Bilkurak 1976an hartutako erabaki baten ondorioz, Donapea Lanbide Heziketako ikastetxea eraikitzeke ez beste ezertarako, halako moduan non itzultze-klausula bat sartu baitzen, xede hori bete ezean aplikatzeko. Hortaz, finka, hasiera batez, Iruñeko Udalaren izenean inskribatuta dago. Gero, Nafarroako Gobernuak berriro inskribatu zuen (erosi gabe); beraz, inskripzio bikoitz horrek auzia korapilatzen du.

Opus Deiren Nafarroako unibertsitate pribatuari lotutako sozietateak lurzati askoren jabeak dira “unibertsitate pribatuaren campusean”, eta horietako asko eraiki gabe daude. Alegia, Nafarroako Unibertsitateak badu eraikitze-ahalmen nahikoa eta gehiago, bere lurzatietan eraiki ahal izateko “Iruñeko campuseko hiru ikerketa zentro berriak (Ingeniaritza Biomedikoa, Gaixotasun Ahantziak eta Nutrizioa eta dietetika)”, aurreko Nafarroako Gobernuarekin sinatutako hitzarmenean ageri direnak.

Ondorioz, paradoxikoa da UPN-PSNren Gobernuak proposatzea horiei saltzea zein eta funtsezko zerbitzu publiko baterako erabiltzen ari den lurzati bakarra –alegia, Donapea IPI–, zeinak hogeita hamar urte baino gehiago baitaramatza lanean bete-betean.

Lanbide Heziketa publikoa hobetzeko ez dugu zertan saldu daukaguna eta funtzionatzen duena; aitzitik, bete gabe dauden beharrezko erantzun behar diegu. Kasu honetan, horrenbestez, Sanitaria BHI berri bat hartzeko eraikin bat egin beharko litzateke soilik, eta Donapea IPIren egungo instalazioak hobetu; alegia, aipatu hitzarmenean aurreikusitakoa baino askoz ere inbertsio txikiagoa egin beharko litzateke.

Hitzarmena ez da justifikatzen, ez hezkuntza publikoaren irizpideekin, ez irizpide sozialekin. Harrigarria gertatzen da: egungo bi ikastetxeak –Donapea IPI eta Sanitaria BHI– hartuko dituen

“Lanbide Heziketako campus berria” deitzen dutena sortzearen kostua 23 milioikoa izanen omen den bitartean, 42 milioiko kostua izanen omen du Sales-tarren ikastetxe pribatu berriak, zeinak azalera bikoitza duen orube batean ikastetxe publikoetako ikasleen erdia egiten duen kopurua hartuko baitu.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du deusezta eta erretira dezan iragan 2011ko martxoaren 18an FIMArekin sinatu zuen hitzarmena.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 4an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onesten duen 174/1999 Foru Dekretua.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alda dezan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onesten duen 174/1999 Foru Dekretua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako diru-sarreraren edo atxikipenen arloko legeria indardunak ondoko taula ezartzen du, langabezia-prestazioen kasurako ehunekoei dagokienez:

| Urteko etekinen zenbatekoa (eurotan) | Ehunekoa |
|--------------------------------------|----------|
| 11.250 baino gehiago | 4,10 |
| 12.750 baino gehiago | 6,20 |
| 14.250 baino gehiago | 8,20 |

Ehuneko horiek lehendabiziko hiru tarteei dagozkie taula orokorrean, seme-alabarik edo bestelako ondorengo ahaidetik gabeko hartzaileen zutabean. Halatan, bi seme-alaba dituen eta urtean 13.000 euroko soldata jasotzen duen pertsona bati ehuneko 2,1eko atxikipena egiten litzaioke. Diru-sarrerak langabezia-prestazioak balira, berriz, atxikipena ehuneko 6,20koa izanen litzateke. Egoera anomaloa sortzen da hartara, premiarik gabe murrizten duena egoera ekonomiko ustez ahula bizi duten familien likidezia. Egia da taulak goiko muga bat ezartzen duela, ehuneko 8,20ko atxikipena aplikatzen duelako 14.250 eurotik aurrera, jasotakoa zenbatekoa den kontuan hartu gabe. Halere, ematen du bidezkoagoa dela –eta amaierako likidazioaren ikuspuntutik, zergadunarentzako egokiagoa– taula orokorra aplikatzea, baita kasu horretan ere.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztzen dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hilabeteko epean alda dezan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretua, langabezia-prestazioei aplikatze aldera lan-etekineterako oro har ezarritako atxikipen-ehunekoak.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ondarearen gaineko Zergaren aldaketa bultzatzen da.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ondarearen gaineko Zergaren aldaketa bultzatzen da.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Apirilaren 25ean, Nafarroako Gobernuak 2012aren amaiera bitarteko koadro ekonomiko aurreikusia berrikusi zuen. Ondorio nagusia da 54 milioi euro inguruko desfasea agertu dela, eta horrek eragotzi egiten lukeela, baldin eta egin diren hipotesiak betetzen badira, defizitaren helburua betetzea.

Aurreikusita dago Nafarroako Gobernuak plan bat aurkeztea hurrengo egunotan, gelditzen den ekitaldi-epetan zehar desfase hori konpontzeko. Aurreratu denez, plan horrek gastua murrizteko edo diru-sarrerak igotzeko neurriak –edo bietarik– jaso ditzake.

Testuinguru honetan, erabakitzeke dago Nafarroako Gobernuak zer jarrera hartuko duen Estatuko Gobernuak onetsitako amnistia fiskalaren aurrean. PSNk amnistia horren aurka dagoela adierazi du; UPNk, aldiz, ez du azken hitza esan.

Bestalde, Ondarearen gaineko Zerga berrezartzea onetsi zen, 2012rako ondorioekin, zeinaren bidez aurreikusten baita 30 milioi euro biltzea. Ondarearen gaineko lehengo Zergaren bidez, aldiz, 70 milioi euro inguru bildu ziren. Adierazi zenez, 30 milioi euro horiei gehituz gero PFEZaren aldaketen ondorioz bilduko ziren beste 20 milioi, 50 milioiko erreserba bat eratuko zen, balizko desbideraketei aurre egiteko.

Geroztik PFEZa aldatu arren eta defizitaren helburua aldatu arren –horrek koltxoi gehigarri bat eskaintzen zigun–, Gobernuak oraintsu helarazi digu metatutako koltxoi horiek baino are handiago izanen dela diru-bilketan aurreikusitako beherakada.

Eta noiz eta testuinguru horretan jartzen da mahai gainean amnistia fiskalaren aukera. Talde honek orain dela oso gutxi eskatu zuen Ondarearen gaineko lehengo Zerga berrezartzea, hartara 70 milioi inguru bildu ahal izanen baitziren. Gure eskaerari ezetza eman zitzaion orduan, agertoki fiskal doitu bat geneukanean.

Hilabete batzuk geroago, ordea, errealitatea aldatu egin da. Bete beharreko 54 milioiko desfasea aurkezten zaigu. Hori dela-eta, talde honek uste du Ondarearen gaineko Zergari buruzko eztabaidak gaurkotatzea duela berriro ere; bereziki, eztabaida sinplifikatu nahi bada, esanez aukeratu beharra dagoela amnistia fiskala onetsi ala ongizatearen estatuari beste guraize-ebaki bat ematearen artean.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berriketan onetsitako Ondarearen gaineko Zergaren aldaketa sustatu dezan lehengo zerga berreskuratzeko, gastuaren aldetik ongizatearen estatua murriztu beharrean eta/edo diru-sarreraren aldetik araubide erkidean onetsitako amnistia fiskala Nafarroan onetsi beharrean.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da indarririk gabe utz dezan salestarren ikastetxea Sarrigurenera lekualdatzea lehentasunezko jarduketatzat hartzeko konpromisoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita indarririk gabe utz dezan salestarren ikastetxea Sarrigurenera lekualdatzea lehentasunezko jarduketatzat hartzeko konpromisoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak:

Egoera zaila bizi dugu ekonomiaren, gizartearen eta lanaren arloan, eta azpiegitura publikoek ere zailtasunak dituzte pertsona guztiei berdintasuna eta elkartasuna ziurtatzeko eta zerbitzu publikoak emateko. Nekez ulertzen da, hortaz, Nafarroako Gobernuak zergatik jarraitzen duen jarduten beste baldintza eta garai batzuetan sortu ziren gaietan, zeinak departamentuek jorratu eta kezkatu beharreko beharrezanetatik eta lehentasunetatik guztiz kanpo baitaude.

Gauzak horrela, deigarria da Salestarretan udalez gairik proiektu sektoriala abian jartzeko beharrezkoak diren urratsak egiten hasi izana Etxebizitza eta Sustapen Departamentua (jarduketa hori lehengo gobernuak sinatutako protokoloaren barruan konprometitu zen).

Kontseilariak Legebiltzar honetan orain dela gutxi egindako agerraldian adierazi zuen erabakita dagoela udalez gairik proiektu sektorial horri jarraitzea eta protokoloa sinatetik heldu diren konpromisoak betetzea; zehazki, legegintzaldi honetan zehar Salestarrak Sarrigurenera lekuz aldatzea finantzatzeko konpromisoa. Erabaki hori justifikatzeko adierazi zuen UPNk eta PSNk sinatutako gobernu-konpromisoetako bat dela hori.

Egoera hain larria da non Gobernuak ezin baitu ziurtatu oinarriko zerbitzuen kalitateari eutsi ahal izatea –besteak beste, hezkuntzarekin zuzenean lotutako zerbitzuen—. Hortaz, onartezina suertatzen da lehentasun gisa mantentzea Salestarren LHko ikastetxe pribatua lekuz aldatzera milioiak eta milioiak bideratzea, diru hori guztia nola, noiz eta zein kopurutan berreskuratuko den ziurtatu gabe.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du indarririk gabe utz dezan Gobernuari sostengua ematen dioten alderdiek, UPNk eta PSNk, hartutako konpromisoa, legegintzaldi honetako itunaren programaren barruan hartutakoa, zeinaren bidez lehentasunezko jarduketatzat jotzen baita Salestarren ikastetxea Sarrigurenera lekualdatzea, aurreko Gobernuak sinatutako protokoloan jasota ageri den bezala.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aplika dezan Ondare Historikoaren Babesa Ziurtatzeko 16/1985 legearen bosgarren xedapen iragankorrean ezarritakoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aplika dezan Ondare Historikoaren Babesa Ziurtatzeko 16/1985 legearen bosgarren xedapen iragankorrean ezarritakoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeak ondare historikoaren definizioa zabaldu zuen; izan ere, aitzinsolasaren arabera, "gizonaren (sic) ekintzari zor zaion kultura materiala sustatzea eta babesa ziurtatzea bere adierarik zabalenean (...) mugarik ezarri gabe haren jabetzaren, erabileraren, antzinatearen edo balio ekonomikoaren ondorioz".

28.1 artikulua ezartzen duenez, "Interes kulturekotzat deklaraturako ondasun higigarriak eta Inbentario Orokorrean sartutakoak, eliza-erakundeen esku baldin badaude haien edozein egoitza edo dependentzian, ezin eskualdatuko dira

kostu bidezko nahiz dohaintzako tituluz, ez eta partikularrei nahiz merkataritza-entitateei laga ere. Ondasun horiek Estatuari, zuzenbide publikoko entitateei edo Elizaren beste erakunde batzuei soil-soilik besterendu edo laga ahal izanen zaizkie."

Bosgarren xedapen iragankorrak ezartzen duenez, berriz, 28.1 artikuluan xedatutakoa zabalduko da, hamar urteko epean, Ondare Historikoaren parte izanik Eliza-erakundeen edukitzean dauden ondasun higigarrietara.

Epe hori betetzear zegoenean, epe hori beste hamar urtez luzatu zuen Zerga, administrazio eta gizarte arloko neurri buruzko abenduaren 30eko 42/1994 Legeak. Epea beste behin luzatu zen, oraingo honetan zazpi urtez, Interes publiko bereziko gertakarien zerga-onurak eta tasak aldatzen dituen abenduaren 29ko 4/2004 Legearen bidez.

Azkenik, Defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurri buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretuko zortzigarren xedapen gehigarriak berriro ere luzatu du, oraingoan urtebetez, 16/1985 Legean xedatutakoa aplikatzeko epea.

Hala, bada, justifikaziorik gabe ari da luzatzen lege baten egiazko aplikazioa, eta hori kaltegarria ere izan daiteke ondare historikoaren osotasuneko, 16/1985 Legearen definizioaren arabera.

Horregatik guztiatik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du egiazki aplika dezan 16/1985 Legeko bosgarren xedapen iragankorrean xedatutakoa, ondare historikoa bere osotasunean eraginkortasunez babestea ziurtatze aldera.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 10ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hedabideen sektorearen lan egoeraren gaineko azterlan bat egin dezan.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hedabideen sektorearen lan egoeraren gaineko azterlan bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Komunitateko hedabideen sektorearen egoeraren gaineko azterlan bat egin dezan.

Nafarroan, hedabideen egoera eta hedabideetako kazetariena eta komunikatzaileena ez da ona. Azken hilabeteotan aldizkariak itxi dira, Nafarroako bi egunkari nagusiak enplegu-erregulazio-ko espedienteak aurkeztetikotik egon dira, eta irratiek nekez irauten dute publizitate-merkatuaren gaineko eguneroko borrokan. Canal 4ren itxieraren ondotik heldu da Canal 6 eta Popular TVren arteko bat-egitea; hartara, desagertu egin dira Foru Komunitatean orain arte zeuden hiru telebistak.

Halere, Nafarroako komunikazioaren egoera ez da hedabide horietara mugatzen. Badira komunikazio-bulegoak, publizitate-agentziak, prentsa-kabinetek, blogak, enpresa pribatuak, ikus-entzunezkoen ekoizleak, eta abar. Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio Fakultateak 150 profesional inguru ateratzen dira urtero. Batzuek lan irtenbide duin samarra aurkitzen dute lanbidearen barruan, eta, Nafarroako Kazetarien Elkartearen lehendakari Miguel Ángel Barónek Nafarroako

Parlamentuko Kultura Batzordean eginitako agerraldian azaldu zuenaren arabera, beste askok kazetaritzarekin zerikusirik ez duten lanbideetan ateratzen dute bizimodua; halatan, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan –garai bateko INEMen– 230 kazetari bakarrik daude izena emanda Nafarroan, nahiz eta argi dagoen komunikazioaren sektorean ez dela lan egiten ari horrenbeste profesional.

Horrek pentsarazten digu erabatekoa dela sektoreak Nafarroan duen egoerari buruzko ezjakintasuna, zeina ez baita soilik laneko auziei buruzkoa, zeren eta komunikazioaren munduak –Komunikazio Fakultatea barne– Foru Komunitatean duen oihartzunari eta itzulkin ekonomikoari buruzkoa ere bai baita. Ezjakintasun hori are larriagoa da baldin eta kontuan hartzen badira Nafarroako hedabideek urtero jaso dituzten diru-laguntza publikoak.

Zein da kazetaritzaren eta komunikazioaren sektoreak gure erkidegoaren BPGari egiten dion ekarpena? Zenbat lanpostu sortzen dituzte Nafarroan komunikazioaren munduarekin lotutako enpresek? Zeharkako zenbat lanpostu sortzen dituzte? Zeintzuk dira komunikazioaren arloko profesionalen lan baldintzak? Zenbat lan hitzarmen ezberdin daude?

Galdera horiek eta beste asko erantzunik gabe gelditzen dira; izan ere, orain arte ez da azterlanik egin gure gizartean gehien eragiten duten sektoreetako bati buruz, zeinak itzulkin ekonomikoaz gain aniztasun ideologikoa ere ematen baitu, zeren, Espainiako Kazetari-elkarteen Federazioak dioenez, “kazetaririk gabe ez baitago kazetaritzarik, eta kazetaritzarik gabe ez baitago demokraziarik”.

Horrela, bada, egoera horri erantzuteko, Parlamentu-talde Popularrak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan Komunikazioaren sektorearen lan-egoerari buruz. Azterlanak ondokoak jasoko ditu:

a) Profesionalen kopurua, jardunean nahiz lan-gabezian daudenena; horien jarduna arautzen duten hitzarmenak; gerta daitezkeen egoera irregularrak; lan baldintzak eta baldintza ekonomikoak, sektorearekin lotutako enpresak, eta abar.

b) Komunikazioaren sektoreak Nafarroako BPGean duen inpaktu ekonomikoa, produkzio-

esparru guztiak barne (kazetaritza enpresak, publizitatea, blogak, ekoizleak, Komunikazio Fakultatea,...), kontuan hartuta diru-sarrerara materialak ez ezik, hedabideen bidez "Nafarroa" marka nazioan eta, zenbaitetan, nazioartean hedatzen (San

Ferminak, kirol ekitaldiak eta abar) heldu den etekina ere.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ez dezan igo ikasleen ratioa hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak dauden tokietan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita ez dezan igo ikasleen ratioa hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak dauden tokietan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Gobernuak segurtatzen du ez duela gurutzatuko gelako ratioa igotzeko neurriaren aplikazioak ekarriko lukeen "lerro gorria" besteak beste 3 urtekoen geletan, aniztasunari erantzuteko talde berezietan eta/edo hezkuntza berezian. Halatan, ratioak ez dira aldatuko Haur

Hezkuntzako lehen mailan, Lanbide Heziketan, atzerritarrentzako murgiltze programetan, Hastapeneko Lanbide Kualifikazioko Programetan, Hastapeneko Lanbide Kualifikazio Bereziko Programetan, Curriculum Egokituko eta Curriculum Aniztasuneko programetan. Hezkuntzako kontseilariak orobat iragarri du kasuan kasuko azterlana egiten dela ratioa igo beharra dagoenean.

Parlamentu-talde honek sarritan adierazi du neurri hori nahiz Nafarroan ez ditugun arazo batzuei erantzute aldera Madrilek proposatutako beste neurri batzuk aplikatzearen aurka dagoela. Gure ustez, neurri horiek inpaktu negatibo handia dute irakaskuntzaren kalitatean, eskubide sozialen arloan atzera egitea ekartzeaz gain.

Argi utzita aurka gaudela, bereziki sentikorrek gara zenbait kasutan, zeinetan ratioaren igoera bereziki kaltegarria izanen bailitzateke; esaterako, hezkuntza premia berezietan ikasleen kasuan eta, zehazki, entzumen-egaitasuna dutenen kasuan.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du ez dezan ratioa inolaz ere igo hezkuntza premia berezietan ikasleak dauden tokietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 10ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat aurkez dezan Osasunak bere tributuzorra ordaintze aldera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita plan bat aurkez dezan Osasunak bere tributuzorra ordaintze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azken hilabeteotan hedabideen bitartez jakin dugu Club Atlético Osasunak 28 milioi eurora irits litekeen zorra daukala Nafarroako Gobernuarekin, zergak ez ordaintzeagatik. Antza denez, zor horren zati handi bat heldu da jokalariei atxikitako PFEZetik.

Azken asteotan orobat jakin ahal izan dugu –berriro ere, Gobernuak kideek hedabideei egindako adierazpenei esker– Club Atlético Osasunarekin negoziatzen ari direla, zor hori ordaintze aldera.

Informaziorik gabeko ziurgabetasun egoera hori ekidite aldera, eta Foru Ogasunari zuzenean eragiten dion arazo larri horri konponbide bat emate aldera, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2012a bukatu aitzin Legebiltzar honetan plan bat aurkez dezan, Osasuna futbol taldeak azken urteotan Foru Ogasunarekin metatu duen tributuzorra ordaintze aldera, legeak ezarritako zenbatekoak eta epeak beteta.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 10ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Nafarroan egun dauden epaitegietatik edozein kendu, lekuz aldatu edo ixtearen aurka dagoela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroan egun dauden epaitegietatik edozein kendu, lekuz aldatu edo ixtearen aurka dagoela, eta Espainiako Gobernuari adierazten dio guztiak mantentzeko borondatea duela, gaur egun dau-

den egoitza beretan: Agoitzen, Lizarran, Tafallan, Tuteran eta Iruñean, ikusirik Nafarroako Parlamentuaren jarrera politikoa eta Justizia Administrazioak Nafarroan duen berriazko trataera ekonomikoa”

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten baitu Israelgo espetxeetan preso dauden palestinarren egoera dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten du Israelgo espetxeetan preso dauden palestinarren egoera dela-eta, eta berriro ere aitortzen die herri gisa duten eskubidea, erresistentzia baketsuan jardutekoa Israelen eraso iraunkorren aurrean.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio adierazpen hau Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bitartez igor diezaien Israelgo erakunde eskudunei, eta erakunde horiei eskatzen die, Genevako itunen eta nazioarteko zuzenbidearekin bat, presoen baldintzak hobetu ditzatela, isolamendu-politikarekin amaitu dezala eta senideen bisitak baimendu ditzala.”

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko indarrean dagoen araudira ekarriko ote diren Espainia-ko Gobernuak Sozietateen gaineko Zergari buruz eginiko aldaketak.*JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko indarrean dagoen araudira ekarriko ote diren Espainia-ko Gobernuak Sozietateen gaineko Zergari buruz eginiko aldaketak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-

ko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Miranda jaunak Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Martxoaren 30ean, Alderdi Popularraren gobernuak zenbait neurri onetsi zituen, besteak beste, Sozietateen gaineko Zergan eragina dutenak. Diru-bilketa areagotu nahi da eta, bereziki, enpresa handietatik heldu dena, zergaren diseinuan gastu finantzarioen kontsiderazioan edo aktiboen amortizazio-askatasunean eragina duten akats batzuk zuzenduz. Berriki ekimen bat eztabaidatu zen Parlamentuan, zeinak Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzuen Sozietateen gaineko Zerga aldatzera. Gobernuan dauden alderdien botoekin atzera bota zen. Egoera hori ikusirik, hau da galdera:

Asmorik al du Nafarroako Gobernuak Nafarroan indarra duten arauetara ekartzeko Espainiako Gobernuak egindako aldaketak? Eta hala bada, zein neurritan?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longás García

Galdera, jakiteko zuzemenik eginen ote den Nafarroako Kutzaren ondare kultural eta artistikoaren etorkizunari dagokionez.

JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zuzemenik eginen ote den Nafarroako Kutzaren ondare kultural eta artistikoaren etorkizunari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-

ak Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Kutzak eta haren gizarte-lanaren arloak zenbait jarduera egin izan dituzte eta erabakiak hartu izan dituzte Nafarroako ondare historiko eta kulturala dela eta. Horien ondorioz, Nafarroako ondareko ondasun batzuk –batzuk balio izugarria dutenak, diruaz haragokoa– erosi ere izan dituzte. Nafarroako Kutxa Banca Cívican eta gero entitate hori Caixabanken sartzearekin, zalantza batzuk sortu dira ondare horren norainoaren inguruan.

Hori guztia dela eta, galdera hau aurkeztu dugu:

- Zer gertatuko da Nafarroako Kutzak eta haren gizarte-lanaren arloak daukaten ondare kultural eta artistikoarekin? Asmorik al du Gobernuak urratsen bat edo ekimenen bat egiteko gai hori dela eta?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longás García

Galdera, ospitaleguneko sukaldeko obren kostuari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, ospitaleguneko sukaldeko obren kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jaso, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduari jarraiki, honako galdera aurkezten du, Osasun Kontseilari Marta Vera Janín andreak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zein irizpideri jarraitu dio Osasun Departamentuak Ospitaleetako sukaldeko obraren kostua 5,08 milioi eurotan kalkulatzeko? Nolabaiteko azterketa teknikorik egin al da?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 10ean

Foru Parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, jakiteko Tokiko Poliziak Koordinatzeko Batzordeko kideek inolako diru-ordainik jasotzen ote duten.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Tokiko Poliziak Koordinatzeko Batzordeko kideek inolako diru-ordainik jasotzen ote duten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Aurtengo apirilaren 24an, Lehendakartzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren martxoaren 28ko 125/2012 Foru Agindua argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Haren bidez, Nafarroako Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordeko kideak izendatu ziren.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

- Batzordekide horietakoren batek ordainsari, ordain ekonomiko edo dietaren bat jasotzen al du organo horretan parte hartzeagatik eta haren bileterara joateagatik? Baiezkoan, zehaztu zenbatekoak.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, 2012ko enplegu-tasaren beherakadaren gaineko aurreikuspenari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, 2012ko enplegu-tasaren beherakadaren gaineko aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Apirilaren 25ean, Nafarroako Gobernuak 2012ko koadro makroekonomikoaren berrikuspen bat aurkeztu zuen. Hartan jasotzen zen enpleguak % 2,4 eginen zuela behera, aurreikusitakoaren arabera.

Parlamentari honek berretsi nahi du zein den aurreikuspen horren interpretazio zuzena, lana duen populazioa oinarri hartuta.

2011ko Biztanleria Aktiboaren Inkestak, egin den azkenak, adierazten zuen 265.300 pertsona-koa dela Nafarroako biztanleria landuna.

- Zuzena litzateke interpretatzea % 2,4ko jaitsi-era horrek esan nahi duela Nafarroako Gobernuak uste duela 2012ko Biztanleria Aktiboaren Inkestak erakutsiko duela biztanleria landunaren kopurua

2011ko Inkestako 265.300 pertsonen kopurua baino % 2,4 txikiagoa izanen dela?

- Interpretazio hori zuzena ez bada, zein izanen litzateke interpretazio egokia populazio landunari dagokionez?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Nafarroako Kutzako Entitate Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorraren bilkurei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutzako Entitate Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorraren bilkurei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Kutzari dagokionez, zehazki Sortzaileen Batzarra deitutakoari dagokionez, honako jakin nahi du parlamentari honek:

- 1- Zenbat aldiz eta aldi bakoitzean zein tokitan bildu zen, sortu zenetik, Nafarroako Kutzako Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorra? Bileren zerrenda bat eskatzen dugu, egutegiduna.

- 2- Bilera guztien aktak bidaltzeko eskatzen dugu.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarrak emandako txostenei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarrak emandako txostenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

rreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Kutxari gagozkiola, zehazki Sortzaileen Batzarra deitutakoari dagokionez, "kontsulta organo" bat izatera mugatzen da bere egin-kizuna, Nafarroako Kutxaren Estatutuek ezartzen dutenez.

Horrenbestez, azken urteetan Nafarroako Kutxaren etorkizunerako izugarritzko garrantzia izan duten inguruabar eta erabakiak direla eta, parlamentari honek honakoa jakin nahi du:

1.- Zenbat txosten eta zein txosten eman dituzte Sortzaileen Batzarrak eta haren Batzorde Iraunkorrek? Horiek guztiak bidaltzeko eskatzen dugu.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarreko kideen dietetarako baimenari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutxako Entitate Sortzaileen Batzarreko kideen dietetarako baimenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Kutxari dagokionez, zehazki Sortzaileen Batzarra deitutakoari dagokionez, honakoa jakin nahi du parlamentari honek:

1.- Nafarroako Kutxako Ordainsarien Batzordean zein aktatan (eta nork sinatutakoan) jasotzen da Sortzaileen Batzarreko eta Sortzaileen Batzarreko Batzorde Iraunkorreko kideen dietak ordaintzeko baimena? Akta horren kopia igortzeko eskatzen dugu.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Kutzaren 2002tik 2012ra arteko balantzeei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutzaren 2002tik 2012ra arteko balantzeei buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Kutzari dagokionez, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1- Zein dira Nafarroako Kutzaren urtez urteko balantzeak, 2002tik hasi eta 2012ra arte, Enrique Goñiren zuzendaritzapean?

2.- Ekitaldi bakoitzeko galdu-irabazien kontua bidaltzeko eskatzen dugu.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Kutzaren industria korporazioa sortu zenetik haren partaidetza izan duten enpresei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutzaren industria korporazioa sortu zenetik haren partaidetza izan duten enpresei buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Kutzari dagokionez, zehazki haren industria korporazioari dagokionez, honakoa jakin nahi du parlamentari honek:

1- Zein izan dira eta zein dira Nafarroako Kutzaren industria korporazioak parte hartutako enpresak, korporazio hori sortu zenetik? Korporazioak parte hartu duen enpresa guztien zerrenda historikoa eskatzen dugu, horietako bakoitzean izandako partaidetzaren zenbatekoak eta Nafarroako Kutzaren industria korporazioarekiko harremanetan izandako mugimenduak zehaztuta.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Kutzaren estatutuen aldaketari buruzkoa, non Entitate Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorra “organo” berri gisa sartzan baita.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutzaren estatutuen aldaketari buruzkoa, non Entitate Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorra “organo” berri gisa sartzan baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Kutzari dagokionez, zehazki “Sortzaileen Batzarra” deitutakoari dagokionez, honako jakin nahi du parlamentari honek:

1.- Nafarroako Kutzaren 2010eko Estatutuen zein aldaketatan jasotzen da Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorra entitatearen “organo” berri gisa?

2.- Zein prozeduraren bitartez egin zen aldaketa hori?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Legasako Arcelor-Mittalen lantegiaren balizko jarduera-amaieraren gaineko aurreikuspeni buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak galdera egin du, Legasako Arcelor-Mittalen lantegiaren balizko jarduera-amaieraren gaineko aurreikuspeni buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko urriaren 28ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak galdera egin du jakiteko, Arcelor-Mittalen Nafarroako Lega-

sa herrian duen plantan egungo industria-jarduera eteten baldin bada, Nafarroako Gobernuak zerbait aurreikusi ote duen, egungo lanpostuak bederen mantenduko dituen beste batek har dezan haren lekua (8-11-/PES-00212). Hona hemen Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Esan behar da ez dela jarduera ekonomikoaren etena, enpresak Lesakan dituen instalazioetara lekualdatze bat baizik; hala, Legasako pintura-instalazioa Lesakako ekoizpen-prozesu orokorrean integratuko da, enpresaren lehiakortasuna hobetze aldera. Hori dela eta, egungo lanpostuak Lesakako instalazioetara eramango dira, hasiera batean behintzat.

Badira hilabete batzuk Nafarroako Gobernuak, Nasuinsaren bitartez, harremanak dituela inguru horretan jarduera ekonomikoaren gune bat eraikitze-

aren bideragarritasun ekonomikoa aztertze aldera –50.000 metro koadro nabeetarako eta 100.000 metro koadro inguru lursail gehigarrietarako–.

Gune hori eraikitze arazo nagusia da Arce-lor-Mittal en jabetzakoak diren lursail eta nabe horien balioari buruzko eskakizun handiak. Gainera, udaletako hirigintza-aholkulariek proposatu zuten zubiko sarbideak zabaltzea, eta horrek are gehiago garestitutako luke operazioa.

Nilsak araztegi bat eta hondakinak tratatzeko planta bat eraikiko ditu eskualde horretan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko azaroaren 18an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Aranoko Heineken-Amstelen garagardo-nabe zaharrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak galdera egin du Aranoko Heineken-Amstelen garagardo-nabe zaharrei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko urriaren 28ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak galdera egin du Heineken-Amstel garagardoaren garai bateko Aranoko nabeei buruz (8-11-/PES-00213). Hona hemen Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Heineken-Amstel garagardoaren nabeak enpresa horren jabetzakoak dira; beraz, Nafarroa-

ko Gobernuak jarduketaren bat egitekotan, enpresak baimendu beharko du.

Hala ere, Heineken enpresak Aranon zuen lan-tegia itxi zenetik, Nafarroako Gobernuak ondoko ekimenak jarri ditu abian, instalazio horietan jardura ekonomikoren bat ezarri ahal izateko:

Hasieran (2009ko udan), Nasuinsak aztertu zuen instalazioak industrialde bihurtzearen bideragarritasuna, eta ondorioztatu zuen operazio hura ez zela bideragarria, oso garestia zelako.

Azken bi urteotan Aranoko instalazioei buruzko datuak eman dizkiegu Nafarroako eskualde horretan kokatzeko interesa zuten bi enpresari.

Dirudienez, orain enpresa bat bertan ezartzen ari da, "Retroingeniería del Plástico" izenekoa, alegia. Enpresa hori Albelda de Ireguakoa da eta makineriaren txikizkako salmentan jarduten du.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Tafallako Fotón enpresak jasota edo jasotzeko dituen laguntza publikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak galdera egin du Tafallako Fotón enpresak jasota edo jasotzeko dituen laguntza publikoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko urriaren 28ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak galdera egin du Fotón enpresari eta matrikulatutako ibilgailu elektrikoari emandako laguntzei buruz (8-11-/PES-00214). Hona hemen Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Lehenengo galderari dagokionez: Tafallako Fotón enpresak, zeinak mota orotako ibilgailu % 100 elektrikoak egiten baititu, zer laguntza publiko, pizgarri fiskal nahiz bestelako diru-laguntza jaso du edo jasoko du?

FOTON enpresak, halakotzat, ez du inolako laguntzarik jaso Nafarroako Gobernutik.

FOTONen proiektuaren Europako sustatzailetako baten (Inceisa/Unitec) partaidetza duten zenbait enpresak ondoko laguntzak jaso dituzte:

a) 2010. urtean: Enpresako zuzendari nagusiaren irailaren 15eko 2026/2010 Ebazpena, autobus elektriko bat erosteari buruzkoa.

- Ordaindutako dirulaguntza: 78.150 euro (% 30)

b) 2011. urtean: Enpresako zuzendari nagusiaren ekainaren 15eko 1210/2011 Ebazpena.

- Zuzeneko laguntzak; Autobusaren bateriak kargatzeko azpiegitura erostea.

Ordaindutako dirulaguntza: 78.755,10 euro (% 70)

- "Zeharkako" laguntzak: Deialdi berean, zeharkako dirulaguntza, 69.822 eurokoa eman zitzaion

UNITEC-i, CITEAN zentro teknologikoaren bitartez, autobus elektrikoaren kontsumoarekin eta autonomiarekin zerikusia zuten bideragarritasun ikerketetarako.

c) Badira laguntza konprometitua, 400.000 euro ingurukoak, 2012, 2013 eta 2014. urteetarako, betiere aurrekontuaren eta harekin lotutako gastuen arabera.

Bigarren eta azken galderari dagokionez: Nafarroan 2011 honetan zehar matrikulatu diren propulzio % 100 elektriko (hots, ez hibrido) ibilgailuen eta autobusen kopurua.

Nafarroan 2011n matrikulatu diren propulzio % 100 elektriko ibilgailu eta autobus kopuruari buruzko galderari dagokionez –bigarren galdera, alegia–, esan behar da bi auto eta autobus bat matrikulatu direla. Kontuan hartu behar da informazio hori diruz lagundutako ibilgailuei buruzkoa dela.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko azaroaren 18an.

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak galdera egin du Tafallako Fotón enpresari buruz (8-11-/PES-00214). Hona hemen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Politika Ekonomikoaren eta Nazioartekoaren Zuzendaritza Nagusian ez dago jasota Tafallako Fotón enpresari inongo diru-laguntzarik eman zaionik. Nafarroako Tributu Ogasunak emandako informazioari dagokionez, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren 105.1. e) artikuluan ezartzen da Tributu Administrazioak bere eginkizunetan lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpean gordetzekoak direla eta ezin izanen direla erabili tributuoak edo baliabideak, zeinen kudeaketa agintzen zaion, benetan aplikatzeko ez bada, eta ezin izanen zaizkiela hirugarrenei laga edo jakitera eman, lagapenak ondokoak xedetzat dituenean

salbu: (...) Lankidetzak, ikerketako batzorde parlamentarioekin, lege ezarritako esparruan.

Tafallako Fotón enpresari buruzko informazio-eskaera ez denez kasu horretan sartzen, Nafarroako Tributu Ogasunak ezin du eman entitate horri buruzko inolako daturik.

2.- Nafarroako Tributu Ogasunaren datu basean jasota dauden datuen arabera, 2011n propulsió

% 100 elektrikoko auto bat eta autobus bat matrikulatu dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuan hartutako neurriei buruzkoa. Errege Lege Dekretu horrek osasun estaldurarik gabe uzten ditu egoera irregularrean dauden etorkinak.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Hauxe zen galdera: "Galdera, apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuan hartutako neurriei

buruzkoa. Errege Lege Dekretu horrek osasun estaldurarik gabe uzten ditu egoera irregularrean dauden etorkinak". Galdera hori 2012ko maiatzaren 7ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

